



Pitxitxi

Pitxitxi gatua balkoian dago. Xoriak airean ibiltzen ikusten ditu: murre-xoria, papogorria eta beste. Buruaren gainetik hegaldatzen zaizkio.

Gatuak dio: – Nik ere xoriek bezala hegaldatu nahi nuke.

5 – Orduan hegalak behar dituzu, guk bezala! – erantzun zioten xoriek.

Gatua oilategira joan zen. Oilarraren luma eder zenbait hartu eta aztaparretan lotu zituen.

Emeki-emeki, balkoira itzuli zen eta erran zuen:

10 – Papogorri! Zeruraino banoa... Bat! Bi! Hiru!

Eta Pitxitxik balkoitik jauzi egin zuen.

– Katakrook!...

Gure gatua zuzen-zuzena lurrera erori zen. Gaixo gatua!

Xoriak berehala heldu ziren Pitxitxiren laguntzera: Murruxoriak

15 anbulantzia deitu, **txantxangorriak** zauria artatu...

Orain Pitxitxi balkoian dago, lotura xuriz estalia, ametsetan...

txantxangorria : papogorria.

Erein argitaletxeko *Txalo pin txalo* liburutik egokitua.


1 IRAKURGAIA ULERTZEN DUT

- Zer egin nahi du Pitxitxik?
- Zer erraiten diote xoriek?
- Zertako doa Pitxitxi oilategira?
- Nor dira Pitxitxiren artatzaileak?
- Hegalak zertako zituen gatuak?

2 HIZKUNTZA ETA GRAMATIKA

► Marrazkiari begiratu eta, hitz bakoitzari zenbaki bat eman eta berridatz.

Gatuaren gorputz atalak



- sudurra
- beharria
- bizarra
- bizkarra
- buztana
- pata
- aztaparra
- begia

► Zutabe hauetako hutsuneak bete itzazu.

oilo	oilategi
behi

ardi
zaldi

► Lehen erranldiari behatuz ondokoak idatz.

Artzaina bordatik heldu da.
Neska karrika..... etorri da.
Ni eskola..... etorri naiz.
Zu baserri..... etorri

Gu okindegi..... etorri
Hori eliza..... etorri
Zuek plaza..... heldu